

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



B2 maila

Irakurmen-proba

Idazmen-proba

1. eredua

Ariketa	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Denbora
Irakurmen-proba	10	20	45 min
Idazmen-proba	15	30	75 min
Guztira			2 h

2021eko bigarren azterketaldia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HADE

B2 MAILA



Egitekoa

Irakurri testua eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena, adibidean egin den bezala. 0 galdera adibidea da.

Idatzi letra dagokion laukian.

*Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu bat** lortuko duzu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.*

— I. TESTUA —

Aitaren etxea

Bikote guztietan daude agerikoagoak eta ez-kutuagoak diren gauzak. Iceberg tankera-koak. Isilagoak edo zalapartatsukoak. Eta bikotekide guztiek osatzen dute beren bikote-bizitzaren kontakizuna, beren bertsio ofiziala, sarritan bat ez datorrena. Modu gordinean ikus daiteke hori Noah Baumbachen “Historia de un matrimonio” pelikulan, dibortzio baten prozesuarekin korapilatua. Modu leunagoan, berriz, Karmele Jaioren “Aitaren etxea” eleberrian. Ismael idazle arrakastatsua da, baina blokeatuta dabil orain. Haren emazte Jasonek idazle izan nahi zuen, baina senarraren zuzentzaile-lanak egitearekin konformatu behar izan du.

Irudi esanguratsu batek laburbildu eta zeharkatzen du nobela. Ismaelen amak dirua eskatzen zion senarrari, berak zerbait aurreztu eta larruzko beroki bat erosteko. Hala-ko batean, senarrak diru hura zegoen kutxa hartu, eta eskopeta berri bat erosteko erabili zuen, emazteari ezer esan gabe. “Denean daude botere harremanak”, ondorioztatzen du liburuko pertsonaietako batek. Batez ere maitasunean.

Hainbat gauza jorratzen dira: gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak; belaunaldi eta ikuskera ezberdinen arteko talka; ehizaren inguruko metafora eder eta mingarriak; gatazkaren zama; taldean doazen txorien ibilbide bitxia, beti aurrea doanari jarraituz; kon-turatu gabe, gurasoen antza hartzen doazen seme-alabak eta hauen kontraesanak... Prosa argiz idatzia, ezagutzaz mintzo da generoen arteko oreka-desorekez, eta gai da ikuspegi ezberdinak emateko, bataren edo bestearen erruduntasunean erori gabe. Hausnarketara bultzatzen du liburuak ikuspuntu eraikitzailez, eta “enpatia” kontzeptuaz pentsarazten digu. Edozein irakurlerentzat gomendagarri, izan gizon zein emakume.

Aritz Gorrotxategi
El Diario Vasco. 2020/01/22
(*Probarako moldatua*)

—I. TESTUA—

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).

Adib.: 0. Zer da “Historia de un matrimonio”?

- a. Noah Baumbach protagonista duen pelikula famatua.
- b. Noah Baumbachek egindako filmaren izenburua.**
- c. Noah Baumbachen nobela ezaguna.

1. Nolakoa izaten da bikotekideek bikote-bizitzaz duten bertsio ofiziala?

- a. Berbera izaten da.
- b. Asmatutakoa izaten da.
- c. Desberdina izaten da biena.

2. Zer gertatzen zaio eleberriko Ismaeli?

- a. Ez du lortzen emazteak bere lanaren zuzenketa egitea.
- b. Ez du lortzen bere lanarekin aurrera egitea.
- c. Ez du lortzen bere lana zuzentzea.

3. Zer gertatu zitzaion Ismaelen amari?

- a. Nahiz eta pixkanaka dirua aurreztu zuen, ezin izan zuen bere nahia bete.
- b. Senarrak, ezer esan gabe, larruzko berokia erosi zion.
- c. Senarrari larruzko berokia erosteko dirua eskatu zion, baina hark ezetz esan zion.

4. Nolako gaiak landu ditu Karmele Jaiok bere eleberrian?

- a. Idazleek idazterakoan izaten dituzten oztopoei buruz ari da.
- b. Era askotako gaiak landu ditu.
- c. Eleberriko gai guztiek dute genero-ikuspegiarekin zerikusia.

5. Artikulugilearen iritziz, zer erakutsi du Karmele Jaiok bere eleberrian?

- a. Ehiza ikaragarri maite duela.
- b. Amaren antz gero eta handiagoa duela.
- c. Jakin badakiela genero-gaiari buruz.

6. Zer ezaugarri ditu eleberriak artikulugilearen iritziz?

- a. Hainbat gai ikuspuntu desberdinetatik lantzea lortzen du.
- b. Harreman zailtan errua nork duen argitzen ahalegintzen da.
- c. Gizonezkoen enpatia bilatzen du, batez ere.



Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondorengo orrian aurkitu testutik kendutako zatiak. Esaldi bat sobera dago. 0 adibidea da. Idatzi letra dagokion laukian.

*Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu bat** lortuko duzu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.*

—2. TESTUA—

Arbitroei edozer

Matxismoak, homofobiak eta arrazakeriak futbolearen eragina dute aspalditik. Oihartzun handiagoa dute jokalarien kasuek, baina epaileek askoz ere gehiagotan jasaten dituzte. Adituen ustez, ez dira behar bezainbeste neurri hartzen arbitroek era duin batean lan egin dezaten.

Bizkaiko hedabide guztiek duela bi hilabete gertatu zen azken eraso jaso zuten. Muskizen (Bizkaia) izandako futbol-partida batean irain homofoboak jasan zituen arbitro batek urtarrilean. Hori dela eta, (0)..... betiko uztea erabaki zuen, gehienbat sentitu zuen babes-faltagatik. Horren ondorioz, berriro piztu zen futbolearen gertatzen diren eraso sexisten, arrazisten eta homofoboaren inguruko eztabaida. Arbitro askoren lekukotzak edo testigantzak argiak dira, baina askok ez dute egoera salatu nahi. Gehienek bizi izan dituzte une deserosoak, baina ez dute hori nabarmendu nahi izaten,(1).....

Gehienetan esperientzia handirik gabeko arbitroek nabaritzen dute babes-faltarik handiena. Gainera, gartzetxoaren arteko partidetan arbitroa bakarrik joan ohi da arbitraje-lanak egitera, eta, hain zuzen ere, partida horietan(2).....

Salaketak salaketa, Bizkaiko Futbol Federazioaren egoera hobetuz doala adierazten dute. Presidentearen ustez, (3)..... ; adibidez, sakelakoa oso tresna lagungarria da, eta eraso larriak gertatzen badira, beti dago 112ra edo Ertzaintzari deitzeko aukera. Haren ustetan oraingo egoera hobea denez,(4)..... Horrez gain, beste askok uste dutenaren kontra, argi dauka partida bertan behera uztea azken aukera dela,(5).....

Federazioaren arazoaren bilakaera positiboa ikusten badute ere, emakumezkoen aurkako irain eta portaera matxistei buruzko berriak gero eta ohikoagoak izaten dira hedabideetan. Ane Asla bilbotarrak 8 urte egin ditu arbitraje-lanetan.(6)....., eta horrek noizbait arbitrajeari uztea pentsarazi dio. Horregatik babes handiagoa eskatzen die federazioari zein erakundeei, batez ere ikusleentzako jarrera desagokiak arbitro gazte askoren ametsa ez zapuzteko. Anek aurrera jarraitzea erabaki zuen eta,(7)....., baina ulertzen du beste gazte batzuek aurrera ez jarraitzea erabaki izana.

June Prieto
Berria, 2020/04/22
(Probarako moldatuta)

—2. TESTUA—

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).

Adb.: 0.- b.- ordura arte egindako zortzi urteko ibilbidea

- a. eta ezkutuan mantentzen dituzte
- b. ordura arte egindako zortzi urteko ibilbidea**
- c. teknologia berriek zerikusi handia izan dute horretan
- d. berak ere bizi izan ditu tentsio uneak
- e. eta aurretik aukera guztiak agortu behar direla
- f. horrek hazten eta heltzen lagundu zion
- g. zigor batzuk ezarri arren, ikusle batzuek beren horretan jarraitzen dute
- h. ez du protokolo zehatz baten beharrik ikusten
- i. ohikoak izaten dira erasoak



Elkarrizketa baten sarrera irakurriko duzu. Ondoren, elkarrizketaren galderak irakurriko dituzu alde batetik, eta galderen erantzunak bestetik.

Egitekoa

Elkarrizketaren galdera bakoitza dagokion erantzunarekin lotu behar duzu, adibidean egiten den bezala. Erantzun bat sobera dago. 0 adibidea da.

Idatzi letra dagokion laukian.

*Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu bat** lortuko duzu. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.*

—3. TESTUA—

Julen Urdaibairi elkarrizketa

Elkarrizketaren sarrera:

«Zoriontsu naiz halako muturreko lasterketak korritzen ditudanean»

Namibian bost eguneko ultra-trail lasterketa batean parte hartu du Julen Urdaibaik. Laugarren etapan ez zituen elikadura kontuak ondo zaindu, eta makalaldi batek galarazi zion irabaztea: bigarren izan zen.

Elkarrizketaren galderak:

0. Nolako gorputzaldiarekin itzuli zara Namibiatik?

1. Ahulaldia lasterketako etaparik motzenezan izan zenuen, 22 kilometrokoan. Ez al da harrigarria?
2. Zer-nolako lasterketa jokatu duzue Namibiako basamortuan?
3. Horrelako lasterketetan zer da gogorragoa: ahalegin fisikoa edo psikologikoa?
4. Zer ikasi duzu Namibiako lasterketatik?
5. Arantzarik utzi dizu azken lasterketak?
6. Zer ematen dizute halako lasterketek eguneroko bizitzan?
7. Datorren urteari begira, beste erronkaren bat pentsatuta al daukazu dagoeneko?

Unai Ugartemendia
Berria, 2019/12/19
(Probarako moldatuta)

—3. TESTUA—

Aukera ezazu erantzun egokia. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).

Elkarrizketaren erantzunak:

- a. Gehienetan, lasterketa luzeak izaten dira, ordu askokoak. Horrelakoetan, badakizu beti izango duzula txakalaldiren bat. Gorputzak behera egiten duenean, burua oso garrantzitsua da, eta, kontrolatzen ez baduzu, dena pikutara joan daiteke. Biak dira garrantzitsuak.
- b. ***Gustura. Lasterketaren zatirik handienean ondo sentitu nintzen, eta, gainera, bigarren amaitu nuen. Uneren batean lehen postuan ere izan nintzen. Baina, beste alde batetik, neure buruarekin ernegatuta, lehen postu hura galtzeagatik.***
- c. Zoriontsu egiten naute. Erantzuna sinplea da, baina oso gustura nago egiten dudanarekin. Jende ezberdina eta errealitate ezberdinak ezagutzeko balio dit, eta, gainera, gustatzen zaidana egiten dut. Egunerokorako ere bikain laguntzen dit.
- d. Temperatura aldetik, 45 eta 50 graduren artean ibili gara. Oso gogorra da, eta joan aurretik banekien. Baina basamortua hori da, oso gogorra, baina aldi berean ederra. Gauak izugarriak dira!
- e. Bai, hori horrela da. Horrelako laguntzarik gabe oso zaila izango litzateke mota honetako lasterketak burutzea. Ia ezinezkoa.
- f. Bai, baina ez diot buelta askorik eman nahi izaten. Asko ikasi dut Namibiako lasterketatik eta, bigarren postutik harago, balorazioa ere ona da orokorrean.
- g. Tira, agian ez nion eman behar besteko garrantzirik. Aurretik pentsatuta neuzkan denborak ez nituen bete, eta, hurrengo egunerako gordeta neukan janaria ez jateagatik, oso une kritikoa pasatu nuen. Bi ordu inguruan egin nahi nuen etapa, baina hiru ordutik gora behar izan nituen. Segituan konturatu nintzen indarrik gabe nindoala.
- h. Asiara joatea gustatuko litzaidake, baina oraindik ez dakit zehazki nora joango naizen. Beharbada, Txinara, Nepalera... Ikusiko dugu.
- i. Konturatu naiz 22 kilometroko etapa batek zenbateko kaltea egin dezakeen, nahiz eta denera 250 kilometro ziren. Esperientzia handia izan arren, gehiegizko konfiantza izan dudanean hartu dut kolperik handiena. Ez zait berehalakoan ahaztuko gertatutakoa.



B2 maila | Idazmen-proba



Idazmena

Egitekoa

Jarraian proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu, eta, ondoren, eskatzen zaizuna kontuan hartuz, idazmen-proba egin.

Oharrak:

- Idazteko, boligrafoa erabili.
- Garbi idatzi, eta saiatu letra argia egiten.
- Orrialde marradunetan idatzi.
- Gogoratu gutxienerako hitz-kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 200 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana egiteko, **75 minutu dituzu.**

Ebaluazio-irizpideak

B2 mailarako helburuak kontuan hartuta, idazlana zuzentzeko irizpideak:

Egokitasuna

Eskatutako gai, solaskide eta xedearen araberako lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa.

Koherentzia

Idea nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.

Kohesioa

Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio-sistema. Kohesio-mekanismoen erabilera: anafarak, ordezkapenak, elipsiak.

Aberastasuna

Hizkuntz baliabideen ugaritasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

Zuzentasuna

Gramatika-arauen erabilera zuzena: ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia... Gaiari loturiko lexikoa.

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia: Jokabide desegokiak eskola-kirolean

Egoera:

Eskola-kiroleko monitore zara, ikasi zenuen ikastetxean. Ikasturte honetan areagotu egin dira ikusleen portaera desegokiak asteburuetakoko partidetan: zenbait gurasoren irainak, mehatxuak eta abar. Hori dela eta, beste monitoreekin hitz egin ondoren, ikastetxeko aldizkarian egoera salatzea erabaki duzue.

Egitekoa:

Bidali gutuna monitoreen izenean ikastetxeko aldizkarira, familiei zuzenduta, iritzia emateko eta egoera salatzeko. Horretarako:

- Adierazi nolako garrantzia duen eskola-kirolak gaztetxoentzat, zuen iritziz.
- Salatu zenbait partidatan bizi izan dituzuen jokabide desegokiak.
- Eman jokabide horiei buruzko iritzia eta adierazi zer ondorio duten gaztetxoengan.
- Proposatu konponbide batzuk, gurasoen jarrera eredugarria izan dadin.

2. gaia: Kultur elkarteak 40 urte

Egoera:

Herriko kultur elkarte bateko lehendakaria zara. Aurten 40 urte beteko ditu elkarteak eta bazkide guztiekin ospatu nahi zenukete zuzendaritzako kideok. Horretarako, kultur egun berezia antolatu, eta, ondoren, afaria egin nahi duzue. Gutun bat prestatzea erabaki duzue bazkide guztiei bidaltzeko.

Egitekoa:

Idatzi gutuna, kultur elkarteko zuzendaritzaren izenean, bazkideei zuzenduta, elkartearen lana azpimarratzeko eta egun berezi horretan parte hartzera animatzeko. Horretarako:

- Kontatu, labur, zer helbururekin sortu zen kultur elkarte.
- Azaldu zergatik izan den garrantzitsua kultur elkarteak herrian orain arte egindako lana.
- Adierazi hemendik aurrera nolako jarduerak bultzatu nahi zenituzketen.
- Azaldu nolako kultur eguna prestatu duzuen eta animatu bazkide guztiak ekitaldietan eta afarian parte hartzera.

Zirriborroetarako
(orrialde hau ez da zuzenduko)

ZIRRIBORROETARAKO